

Heroi bat sortu da!

Maeve
Friel

Marrazkiak

Joelle
Dreidemy

desclée



Merkatu plaza

Marmelada-fabrika

Ereinetz kafetegia

Sardinen kalezuloa

Aldebakar kalea

Jolastoki Zaharra

Errepide nagusia

Duke kalea

Trenbide kalea

Trenbide geltokia

Behi bidea

Kizkurtu ala hil!

Zurberritze Lantegia

Postetxea

Herriaren Mapa

Almadia
uretaratu
zuten
lekua



Hau ni naiz (eta Rosie, nire txakurra!).
Amarekin bizi naiz -Vicky du izena- Pikutako
Baztergaldun, SEKULA EZER GERTATZEN EZ
DEN herri menditsu batean, Aldebakar kalean.
Herri honetan, dena dago itxita edo gainbehera
betean, eta jendea, berriz, zaharregia ez
bada umeegia da, edo, bestela, herritik alde
egitekotan dira edo arraro hutsak dira.

Ez da oso leku aproposa heroi
batentzat, baina HORIXE erabaki dut:
heroi izatea. Zaldun Errari bihurtuko
naiz, eta mundua korrituko dut
abenturen xerka...

Ea ba, zein da hemendik alde egiteko modurik onena?




Nire etxea

Hannibaldarren
etxaldea



Sagardi
zaharra



Errepide berri
amaitu gabea

Oporretarako
etxolak



Pikutako
baztergaldun
bizi den
jendea

Xingar Bacon




Hirugarhon Bacon, etregileia



Amona Rita

Sammy eta Zog



Ama

Nick Okila



Goxone eta Argine, Otsoa andereroak



Izeba Pamela, Kizkurtu ala hill! ile-aparipetika



Hirugihar Bacon semea



Milo



Aiketaz Murphy, iturgina



Hantiba / senar-emazteak







1. atala

—Lily! Lily! Azken aldiz! LILY! —orro egin zuen amak eskailera-oinetik.

Lilyk ez zituen entzun amaren deiadarrak. Izan ere, amak baino ez zion esaten *Lily* Lilyri: gainerako guztiek *Tiger* esaten zioten. Baina ez zen hura amaren deiak ez entzuteko arrazoia, sudurra liburu batean sartua zuela baizik.

Tiger Lily liburuzale amorratua izana zen betidanik. Aldebakar kaleko etxea liburuz LEPO BETETA zegoen.

Apaletan jarritako liburuez gain, bazeuden liburuak logeletan, liburuak sarreran, liburuak



komunean, liburuak sukaldean eta liburuak eskaileretan. Liburuak zeuden mahaien gainean eta mahaien azpian, aulkien gainean eta aulkien artean eta aulkien atzean. Bazeuden liburuak eskailerapean ere, Gabonetarako apaingarrien eta jirafa puzgarri baten ondoan.




LIBURU-IZURRITE txar batek hartuta zegoen etxe osoa. Hutsik zeuden txoko guzti-guztiek

jabetzen ari ziren liburuak. Eta, libururik ez zegoen lekuetan, poemak zeuden. Tiger Lilyk zelo-paperarekin itsasten zituen ate eta paretetan. Baita

hozkailuan ere; hantxe zeukan jarrita, bi imanen azpian, bere poema kuttunaren zati bat: *Hamelingo txirulariarena*.





Tiger Lilyren ama ere, Vicky, izugarri liburu-
zalea zen. Liburutegi-furgoneta ibiltariaren
gidaria zen, eta, batzuetan, haran hartako
herritxoetan erronda egin behar zuenean,
berekin eramaten zuen Lily. Noranahi joaten
zirela ere, sudurra liburu batean sartua zuen
jendea aurkitzen zuten. Liburutegi ibiltariaren
bezero ohikoek maitasun-istorioak eta detektibe-
istorioak atsegin zituzten. Mendizaleek poema-
bilduma arinak eramaten zituzten bizkar-zorroan.
Hondartzan, azal biguneko liburu potoloak tripa
gainean gora eta behera zebilzkiela egiten
zituzten lo-kuluxkak udako bisitariak.



Tiger, ordea, ez zen liburuzalea bakarrik:
LIBURU-JALE AMORRATUA zen!

Irakurria zuen nola lortu zuen Fern-ek Wilbur txerritxo bere aitaren aizkoratik askatzea, *Charlotteren amaraunean*.

Sekulako inbidia ematen zion Alicek, nola Untxi Zuriaren atzetik untxi-zuloan behera joan eta, bat-batean, Herrialde Miresgarrian aurkitu zuen bere burua.

Batzuetan, tximino baten jabe izan nahiko zukeen, Pippi Kaltzaluze bezala, eta etxalde batean bizi, bakarrik, nahi zuena egin ahal izateko, nahi zuenean.





Beste batzuetan, desio zuen ganbaran lehengusu misteriotso bat aurkitzea, *Lorategi Sekretuko* neskak bezala.


Baina, batez ere, *Anderetxoak* ipuineko Jo March bezalakoa izan nahiko zuen, eta bere gaztaina-koloreko ile ederra saldu (gaztaina-koloreko ile ederra izan behar, horretarako) bere familia hondamendi ekonomiko segur batetik salbatzeko. (Hain zuzen, horixe bera gertatuko zitzaien, amak estilo berriko liburutegi-furgoneta handi haiek gidatzeko baimena eskuratzen ez bazuen).

Irakurketa haiek guztiek burua aztoratu zioten. Hortik sortzen zitzaizkion ideia burutsu haiek, ezin konta ahala aldiz arazoak ekarri zizkietenak; adibidez, lorategian zuloa egin eta zuloa egin aritu zenean, bitxien bila, *Altxor-ehiztariak* irakurri ondoren. Hura guztia ahaztua zuen, ordea, HEROI izateko erabakia hartu zuen egunean, ikasturte erdiko oporren lehen larunbat hartan.



Baina zer heroi mota izan zitekeen bera?
Zein ote zen heroi bihurtzeko modurik onena?

Koadernoan orri garbi bat hartu, eta
zerrenda bat egin zuen.



Guztiak ziren onak, azkena izan ezik.
Merezimendu osoko heroi izan nahi zuen, ez
printzesa gatzgabe bat, eta nolana ere ez
zuen asmorik inorekin luzaz ezkontzeko. Azken
lerroa zirrimarratu, eta zerrendari begiratu zion
berri.



Bazegoen oraindik arazo bat. Inoiz ezer gertatzen ez zenez Pikutako Baztergaldun, ibildaun abiatu beharko zuen, abenturen xerka. Baina nola joango zen ibildaun, zaldirik ez bazuen? Ez baloi aerostatikorik, ez erratzik, ez zalgurdirik, ez eta gerraontzirik ere? Bizikletarik ere ez zuen eta.

Beste arazo bat ere bazegoen. Heroi orok behar du laguntzaile bat: ezkutari bat edo amandre jakintsu bat edo esklabo leial bat; anaia eta ahizpa gazteagoen familia batek ere balio zezakeen, baina halakorik batere ez zeukan...





Bere adineko inor ere ez zen geratzen herrian, Sammy bere lagun mina hirira bizitzera joan zenetik. Milo Hannibal eta haren koadrila baino ez ziren geratzen, eta Ama-umeen Taldeko orpo-gorritxoak.

Ohean etzanda zegoen, buruari galdetuz non arraio aurki zezakeen laguntzaile LEIAL SUHAR bat, ezeren aurrean kikilduko ez zena, beharra sortuz gero bizia bera ere emango zukeena bere heroiarengatik, eta, une hartantxe...





Lilyk egundoko ezustekoa hartu zuen bat-batean ama ikusi zuenean beraren gainera makurtuta, lumazko jaka gorrimin bat soinean, eta, jauzi batez ohetik altxatu zelarik, liburu-dorre bat bota zuen eta, nahi gabe, Rosieri hanka bat zapaldu zion, eta txakur gajoa zaunka mindu ozen batean hasi zen. (Hiru hankako galgo urduria eta argal-argala zen Rosie, egun batzuk lehenago Lilyk trenbideko zubipetik erreskatatua).

